Erakundearen digitalizazioaren barnean, HEZILAN ordezkatu duen softwarea aukeratu eta martxan jarri dugu (<https://ikastaroak.goierrieskola.eus>), LHK aplikazioa.

Taldeen homogeneousazioa bilatzen jarraitu dugu, baina arrakastarik gabe oraingoan. Horrela, emaitzak ez dira egokiak izan (bukatu dutenen ehunekoa, gainditu dutenen ehunekoa) bai oinarritzko gaitasuneko, bai diseinuko ikastaro luzeetan bai eta Elkar Ekin Lanean proiektu barnekoan (hauetan hautaketa ez da gurea izan).

Irakasleen sarea sendotu dugula esan ahal dugu, emandako ikastaro guztietarako irakasle aproposak eskuratu baitira. Hala ere, egoera kezagarria suertatzen ari zaigu: bi ikastaro luzetan, irakasle banak ikastaroa utzi du kontratua amaitzeko gutxi falta zuela, beste nonbaiten ikastaro berri bat hasteko.

Hurrengo ikasturterako aurreikuspenei dagokionean, honakoa esan dezakegu:

- Lanbideren deialdiei lotuta:
 - Enplegu-nitxo berrien deialdiari lotutako 2 ikastarori hasiera eman beharrean gaude 2024-2025 ikasturtearen hasieran.
 - Langabetuei eta lanean ari direnei zuzendutako deialdietarako gure planak aurkeztu ditugu eta ebazpenaren zain gaude, baina puntuak eskuratzeko jarri dituzten baldintzekin oso zaila izango dugu gure planak aurrera ateratzea. Ematen badigute ere, egoera kezagarria izango dugu, oso epe eskasa izango baitugu planak aurrera ateratzeko.
- 2022-2023 ikasturtean neurrirako formazioan aktibitatea sendotzea lortu bagenuen ere, 2023-2024ean oso beherakada handia pairatu dugu. Gure aktibitatea 531,5 ordura eramatea lortu da (iaz 1133). Aurreko ikasturtearekin alderatuta, Goierri Valleyrako formazioa jaitsi zaigu, ez dugu ez CAFerako ez eta IRIZARerako ikastaro luzerik izan. Hurrengo ikasturtean helburuetako bat egoerari buelta hartzea izan behar dugu.
- Elkar Ekin Lanean proiektu berria martxan jarriko da 2025etik aurrera eta bertan hainbat formazio eman ahal izango dugula espero dugu: oinarritzko gaitasunak, ostalaritza, biltegiko laguntzailea.

Kanpotik etorritako irakasleen kasurako haien ebaluazio-irizpideetan eguneraketa bat egin da: material gehigarriaren erregistroa gehitu da. Irakasle guztiei beraien ebaluazioa jakinarazi zaie.

Bi irakaslek gurekin kontratua amaitu aurretik beste erakunde batzuetara alde egin ziguten, gurekin egon ziren artean oso jarduera ona izan bazuten ere. Gai honekin geroz eta mehatxu garbiagoa dugu.

Aurten, laugarren aldiz, irakasleei haien asebetetze-mailagatik galdetu zaie. Emaitzak onak. Hala ere, erantzun-maila apala agerian jarri behar da (4 erantzun izan dira, 7 posibleetatik).

Kontratazio prozesua	4,50/5
Lanposturako harrera	4,50/5
Bulego akademikoarekin erlazioa	4,50/5
Klasea emateko baliabideak	4,25/5
Klaseak emateko jasotako laguntza	5,00/5
Lan baldintzak	4,00/5
Goierri Eskolarekin izandako esperientzia, orokorrean	4,50/5

Bi atal dira azpimarragarriak:

- Erantzun-kopurua jaitsi egin zaigu nabarmen: lehenengo galdeketa 13 erantzun izan genituen, bigarren 10, hirugarren 5 eta oraingoan, esan bezala, 4. Egia da erantzun posibleen %59 dela.
- Klasea emateko baliabideen puntuazioa igo egin da eta iazko beherakadaren ondoren, joera negatiborik ez dagoela dirudi.

2.3.6. BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

Planifikatutako ekintzak modu egokian garatu dira eta finkatutako helburuak lortu, emaitza barne. Inbertsioei dagokionez, erreferentzia 200.000€ zen baina gauzatutako inbertsioak 2023 urtean 368.000 € tara iritsi dira (hauetatik 148.378 € Eusko Jaurlaritzako "Ekipamenduak 2023-Ámbito II" delako dirulaguntzaz %100 finantzatuak izan direlarik). Kontabilitate prozesua egoki kudeatu da, eta horren ondorioz 2023ko ikuskarpen ekonomikoa ongi amaitu da. Deskargua egiteko beharrezkoak izan diren euskarriak diseinatu dira eta baliagarriak izan dira. Sarrera eta gastuei segimendua egin zaie, 2023ko itxiera ikuskatu ostean ekitaldiko emaitza 248.614€ geratu da, honek aurreko ekitaldiarekiko hobekuntza nabarmena suposatzen duelarik bilakaera aldaketa sendotuz.

Aurreikusitako aktibitatearen baitan gastuak eta sarrerak kontuan hartu dira aurrekontua definitzeko. 2024 urterako aurreikusi eta patronatu batzordean abenduan onartu zen emaitza 2.510,62 €koa da.

Aurrekontua definitzeko momentuan, hainbat egoera (Lanbide - langabetu nahiz lanean daudenentzat-, Kontzertuak, etab.) kontuan hartu dira. 2024ko aurrekonturako kontzertu kontzeptupean izango ditugun sarrerak: 5.053.202 € izango dira eta 24/25 ikasturterako, LEHrako aurrekontua 421.870 €koa izango dela aurreikusi da.

Pertsonalaren atala 5.576.384 € izango dela aurreikusten da. Zaharberritze kapitulua berriz, mantenurako gastuaren aurrekontua iazko erreferentzia harturik mantendu egin dugu, hau da 250.000€. Bi zatitan banatuta daude: mantenu orokorrerako (125.000€) eta informatika mantenurako (125.000€).

200.000€ partida kontuan hartu da inbertsiotarako. Era berean, Eskola kudeatzeko erabiltzen diren prozesuentzat baliabide ekonomikoak kontsideratu dira %100an. Emaitza erdietsiko dela espero badugu ere, aurrekontuak aktibitate eta sarreren hipotesitan oinarriturik egin direla kontuan hartu beharra dago; betiere aldaketak izan ditzakegu eta, ondorioz, hainbat partiden desbideratzeak izan.

Mantenu informatikoa eta orokorra ongi kudeatzeko BUSINESS CENTRAL programan ere (NAVISON programaren ordezkia) kontuen eskema pertsonalizatuekin jarraitzen dugu. Eskema hauek kudeatzaileei laguntzeko prestatuta daude.

Emandako zerbitzuen adostasunari dagokionez, esan, ikuskarpen ekonomikoko txostenean oinarriturik, kudeaketa egokia izan dela eta ez direla doikuntzak egin behar izan. GHEFko patronatu batzordeak ikuskatutako txostena onartu du 2024ko ekaineko bileran.

2.3.7. BALIABIDE ETA AKTIBOEN KUDEAKETA

BAK prozesurako jarritako 7 helburu orokorrek ibilbide desberdina izan dute. Helburu nagusiak hauek dira:

1 Goierrri Eskolako aktibitate ekonomiko jasagarria izatea ziurtatu 2 Ikasleak GJH-etan sentsibilizatu eta eskola jasagarritasun eredu bilakatzea, 3 Pertsonen ongizatea bultzatu: arrisku psikosozialak, 4 DIGITALIZAZIOA BAK, 5 BAK prozesuko planean dauden beste helburu batzuk (5.1 ziklo

berrien guneen egokitzea, 5.2 bak infor zerbitzuaren erabiltzaileen satisfazioa handitu, 5.3 control op. Ordezkatu) 6 segurtasunarekin erlazionaturiko helburuak 7 ingurmenarekin loturiko helburuak

1 Goierri Eskolako aktibitate ekonomiko jasagarria izatea ziurtatu:

Alde batetik gastua kontrolatzeko atalari dagokionez erreferentzia aurrekontua da eta hori bete ahal izan da. Horretarako, prozedura bezala, ekitaldiaren hasieran ezinbesteko beharrei aurre egiten zaie eta bigarren zatirako uzten dira hobekuntzak. Hauentzat aurrekonturik ez balego hurrengo ekitaldirako kontutan hartzen dira.

Aurtengoan POWER BI erabiliz, GASTU/INBERTSIOAK kontrolatzeko aplikazioa martxan jarri da INTRANETAN kudeaketa ekonomiko prozesuan, bertatik KU eta PROZESU jabeak beraiei INBERTSIOAK eta GASTUAK kontrolatu ditzakelarik.

Datozen ikasturteetan erreminta hauen erabileran sakontzea espero da, kudeaketa, kontrol panel desberdinen ezarrera aurreikusten delarik. KU ek beraiei baliabideen kontrol zorrotzagoa egin dezaten, bai gastu eta inbertsioen ikuspegitik

24/25 ikasturtean helburua: gastu / inbertsio kontrol-panelen ezarrera KU etan.

Bestalde, Auto hornidura energetikoa lantzen ari gara, 3 eraikinean eguzki panelen ezarrera aurreikusten da. 70.000 kwp sortze ahalmenarekin. Proiektu guztiaren kostua 79.981€-takoa da. EVE-ren dirulaguntza lortu degu %70 ekoa. 2024 otsailak 29 an.

MRR fondo europarretatik bideratutako laguntza izanik, aparteko eskakizunak direla eta, esleipena, lizitatu beharrean aurkitzen gera, honek ezarrera prozedura denboran dezente atzeratuko du

24/25 ikasturtean helburua: 3. Eraikineko eguzki panelen ezarrera

Eraberritutako guneak honakoak izan dira:

- 2103/2106 ziklo berrietarako gelak
- SES Gunea laborategia dagoeneko osatu da
- 4205 POPBL / proiektuetarako gela ezarri da

Gelen berriztatzearekin aurrera jarraitzeko pausoak ematen ari gara eta aurrerantzean honekin jarraituko dugu progresiboki.

Baliabide digitalen egokitzapenari dagokionean, adierazleetan eragin nabarmenik izan ez badu ere, egutegi ordutegi antolaketa aldatu da 24/25 ikasturterako. Bestalde 24/25 ikasturterako goi mailako ikasle guztiek beraiei ekipoak ekartzeko erabakia ere hartu da, eta honek erakundeak dituen PC en beharra murriztuko badu ere bestelako behar batzuk ekarriko ditu, besteak beste, sareko estaldura zein software desberdinen lizentziamenduari dagokionean.

Digitalizazio arloarekin lotuta, BAK prozesuaren operatibian erabilera nabarmena duen "control operacional"-aren ordezkoa izango den sistemaren bilaketa izan da helburuetako bat, bide honetan aurrera pausoak egin dira, sistema honen ordezkatzea eman dezakeen ODOO plataforma erabiliz.

24/25 ikasturtean helburua: ODOO ren aukerak arakatzen jarraituko degu MANTENU ko atalari dagokionean

Digitalizazioarekin eta efizientzi energetikoarekin loturiko beste helburuetako bat, Domotika sistemen ezarrera, litzatek, ez dira aurrerapausorik eman gai honen inguruan.

24/25 ikasturtean helburua: domotikarekin loturiko aktuarioren bat aurrera eramatea



2.3.8. KOMUNIKAZIOA

Tik-tok sare sozial berriaren ustiaketa gauzatu da, ikasleak eurak edukiak igo dituztelarik. Gauzatu bada ere, erabilera ez da izan behar adinakoa. Hurrengo ikasturtean indartzeko ekintzak burutu beharko dira.

Online modalitateko eskaintza merkaturatzeko kanal berriak (web orria) ezarri eta erabili dira. Kurtsoak promozionatzeko erabili dira. Erabilera neurtzeko metrikak ere ezarri dira. Guzti hau, ordea, alde batera utziko da, eskaintza modalitate honek ez bait du espero zen harrera izan. Ekimena baztertzea erabaki da.

SES alorrean, katalogo berri bat diseinatzeko helburua ez da gauzatu.

Kultura prebentiboa erakundean sustatu asmoz, pildora informatiboak hedatzeko helburua zegoen arren, hau ez da gauzatu.

Pertsonen ongizateari loturik, "Salaketa kanala" ezarri da, erakundeko nahiz kanpoko edozein pertsonak erabil dezakeelarik. Kanpo-erabiltzaile bideratuta, web orrian txertatu da. Aldiz, barne-erabiltzaileentzat, intranetean ipini da.

Prozesuen digitalizazioari esker, eraginkortasuna areagotzeko helburuarekin, PowerBi aplikazioaren erabilera hedatzen ari gara. Bestalde, hainbat aplikazio ordezkatu dira, horien artean ez-arautuko ikastaroak kudeatzen dituenak. Berrikuntza poloaren webgunea ere eguneratzeko lehen pausoak eman dira.

Administrazioan ere, matrikulazioari loturiko hainbat prozesu digitalizatu dira.

2.3.9. BERRIKUNTZA

Aipagarriak dira ondorengo helburuetan izan dugun garapena:

Kanpo dirulaguntzak areagotu berrikuntzari dagokionean.

Sailburuordetzako proiektuei dagokionean, "TKNIKA proiektuak", proiektu bat garatu da 23/24 ikasturtean:

AMFOR: Fabricación Aditiva para Modelos de Fundición: 16526.40 €

Proiektu hau, IMH rekin batera eraman da aurrera, oso modu arrakastatsuan. Mikel Arizkorreta aritu da proiektu honetan.

Goierrri Eskola, Nodo fabrikazio aurreratuan parte hartzen jarraitu du 23/24 ikasturtean (Juanjo Igarzabal) 9.730 €

Ekipamendu deialdian, 2. eremurari loturiko proiektua aurkeztu ondoren dirulaguntza lortu da, Robotika Kolaboratiboarekin loturiko proiektua garatzeko, honekin hainbat baliabide eskuratu dira, besteak beste, 4 robot UR 5, dirulaguntza 150.000 €-takoa izan da.

Dualiza /Bankia proiektu bat aurkeztu da, Silver Care proiektua, honekin PA tailerraren egokitzapenarekin hasi nahi da gure tailer baliabideak, zaintza eredu berriekin lerrokatuz 10.000 €

HASS HENE fundazioari dirulaguntza bat eskatu zitzaion, 2fm3 ko proiektuekin loturikoa, honela tailerreko ekipamendua eskuratzeko 15.000 €- tako dirulaguntza lortu da.

Guztira 201.256'4 € eskuratu dira



3. BEZEROENGANAKO EMAITZAK

3.1. HEZKUNTZA ARAUTUA

3.1.1. MATRIKULAZIOAREN EMAITZAK

Matrikulazioa itxirik, aurreikusitako talde guztiak eratu ziren.

3.1.2. HEZKUNTZA ARAUTUKO EMAITZAK

Ondorengo taulak, hezkuntza arautuko talde bakoitzean lorturiko emaitzak bildu ditu:

		Ikasle Kopurua	Titulatu 2º Promociona 1º	FCTra iraila	Errepikatu	Kanpoan geratu 4 deialdi agortuta	BAJA	Promozionatuen %-a
OLH	1MEK1	14	11	-	3	0	0	78,1%
	1ELM1	14	10	-	3	0	0	71,4%
	1KA1	12	9	-	3	0	5	75%
	1SU1	15	9	-	3	0	1	60%
	2MEK1	15	12	0	3	1	0	73,3%
	2ELM1	13	10	0	3	0	0	76,9%
	2KA1	10	8	0	2	0	0	80%
	2SU1	9	9	0	0	0	0	100%
ERDI MAILA	1ME2	25	20	-	5	0	0	80%
	1SG2	25	18	-	6	1	0	72,0%
	1PA2	13	7	-	5	1	0	53,8%
	1MK2	25	16	-	7	2	0	64%
	2ME2	16	16	0	0	0	0	100,0%
	2SG2	23	11	5	7	0	0	73,9%
	2PA2	18	18	0	0	0	0	100,0%
	2MK2	22	18	4	0	0	0	100,0%

		Ikasle Kopurua	Titulatu 2º Promociona 1º	FCTra iraila	Errepikatu	Kanpoan geratu 4 deialdi agortuta	BAJA	Promozionatuen %-a
GOI MAILA	1AF3	20	17	-	2	1	0	85.0%
	1MK3	24	23	-	1	0	0	95.8%
	1DF3	25	22	-	3	0	0	88.0%
	1AR3	23	19	-	4	0	0	82.6%
	1MT3	24	17	-	7	0	0	70.8%
	1FM3A	23	19	-	4	0	0	82.6%
	1FM3B	26	19	-	7	0	0	73.1%
	1MG3	9	7	-	2	0	0	77.8%
	1WG3	8	7	-	1	0	0	87.5%
	2AF3	18	15	2	1	0	0	94.4%
	2MK3	30	26	4	0	0	0	100.0%
	2DF3	18	16	1	1	0	0	94.4%
	2AR3	17	10	5	2	0	0	88.2%
	2MT3	12	12	0	0	0	0	100.0%
	2FM3A	24	22	1	1	1	0	95.8%
	2FM3B	23	23	0	0	0	0	100.0%

		Ikasle Kopurua	Titulatu 2º Promociona 1º	Errepikatu	BAJA	Promozionatuen %-a
BATXI	1BT1	28	27	1	0	96.4%
	1BT2	28	27	1	0	96.4%
	1BT3	11	11	0	0	100.0%
	1BT3 O	15	14	1	0	93.3%
	2BT1	27	24	3	0	88.9%
	2BT2	28	28	0	0	100.0%
	2BT3	12	10	2	0	83.3%
	2BT3 O	13	12	1	0	92.3%

3.1.3. GREBAK

Greba egun bat eta paro egun bat izan dira ikasturtean zehar:

ZAINZA PUBLIKOAREN ALDE GREBA FEMINISTA						
DEAIALDI MOTA			EGUN GUZTIKO ETENALDIA:			
BOZKETA EGUNA:		Azaroak 29				
	BAI	EZ	TXURI	BALIOGABEA	DESBINKULATUAK	PARTE HARTU EZ DUTENAK
GUZTIRA	560	5	13	1	30	63
DESBINKULATUAK DAUDEN TALDEAK			1DF3	2MK3	2AR3	

MARTXOAK 08: GREBA FEMINISTA						
DEAIALDI MOTA			ETENALDIA: 11:00 TATIK AURRERA			
BOZKETA EGUNA:		Azaroak 29				
	BAI	EZ	TXURI	BALIOGABEA	DESBINKULATUAK	PARTE HARTU EZ DUTENAK
GUZTIRA	367	17	7	0	24	48
DESBINKULATUAK DAUDEN TALDEAK			1DF3	1FM3B	1MK3	


3.1.4. SATISFAZIOA

3.1.4.1. HEZKUNTZA ARAUTUKO IKASLEEN SATISFAZIOA

Laburpen modura, ondorengo taulak hezkuntza arautuko ikasleei egindako inkestaren ondorioz, hobekien puntuaturiko 5 atalak eta lehentasun handieneko 5 hobetze arloak bildu ditu.

Hobekuntza Arloak	03.- Eskolatik eskolaz kanpoko ekintzei buruzko (kirolak, ekintza kulturalak,...) informazioa jasotzen dut.	3,47
	10.- Salmenta makinei buruzko satisfazioa.	3,73
	04.- Eskolak emandako lan-poltsa eta lanbide zerbitzuak egokiak dira.	3,83
	09.- Iradokizunei emandako trataera egokia da.	3,85
	15.- Kurtsoan zehar klaseko martxan izandako aldaketei (ordutegiak, gelak, azterketa datak,...) buruzko informazioa egokia izan da.	3,86
Alde Sendoak	12.- Liburutegi zerbitzua egokia da.	4,14
	13.- Idazkaritza zerbitzua (harrera, efizientzia,...) egokia da.	4,12
	21.- Eskola honetan ikasteagatik zure satisfazioa.	4
	17.- Aparkalekuak egokiak dira.	3,99
	18.- Eskolako kudeaketan nire ordezkarien jardura egokia da.	3,98

Hezkuntza arautuko ikasleen satisfazioa ikastetxe honetan ikasteagatik 4/5 izan da eta satisfazio orokorra (item guztien batezbestekoa) 3.91/5 izan da, honako banaketa eman delarik:



Bestetik, eta ikuspegi pedagogikoari dagokionez, hiruhilero burututako inkestetan, honako hauek izan dira lorturiko emaitzak (3 hiruhilerokoen batezbestekoak):


01. Eskolan zailtasunen bat baldin badut, badut norengana jo	4,1
02. Irakaslearen azalpenetan lan munduari buruzko erreferentziak egiten dira	4,01
03. Eskolatik arlo akademikoaz (ordutegiak, azterketak, notak,...) nahikoa informazio jasotzen dut.	4,07
04. Zer iruditzen zaizkizu eginiko eskolako ekintza osagarriak (enpresetara bisitak, hitzaldiak, odol-emate saioak?)	3,96

05. Gelan daukagun ikas giroa	4,07
06. Ikasleen arteko harremana gelan	4,21
07. Ikasleen arteko harremana eskolan	4,11
08. Eskola barruko garbitasuna	4,02
09. Eskolaz kanpoko garbitasuna	3,92
10. Zerbitzu informatikoarekiko nire satisfazioa	3,59
11. Tutoritzarekiko satisfazioa	4,03
12. Gaien artean loturarik badago.	4,08

3.1.4.2. FAMILIEN SATISFAZIOA

Soilik 18 urtez beherako gurasoei pasatzen zaie inkesta. Microsoft Forms erabiliz lortu dira hauek. Guztira 106 familiak bete dute.

Beraien batez besteko satisfazioa **4,23/5**-etik eta Eskolaren balorazio globala **4,33/5** izan delarik. Bestetik, Eskola gomendatuko luketen gurasoen ehunekoa **%94,69**-koa da. Inkestako atal bakoitzeko emaitzak honakoak dira:



3.1.5. LANEAN TXERTATZEA

23/24 ikasturtean, Lanbide Heziketako ikasketak amaitutako ikasleen kopurua 182-koa izan da. Aurreko ikasturtearekiko konparaketa egitean datuak antzekoak direla ikusi daiteke. Laneratze kopurua zerbait handitu egin da. Ikasten jarraituko dutenen kopurua ere berdintsu mantendu da orokorrean, goi mailan beherakada txiki bat badago ere, erdi mailako gorakadarekin berdindu da. Portzentaiaetan emanda, % 55 lanean, % 37 ikasten eta % 8 langabezia.

ZIKLOA	IKASTEN	LANEAN	LANGABEZIAN EDO EZINEAN	GUZTIRA
AF3	2	10	3	15
DF3	2	12	2	16
FM3(A)	4	15	2	21
FM3(B)	3	18	2	23
MT3	1	11	0	12
MK3	6	19	0	25
AR3	4	6	0	10
MK2	13	3	0	16
ME2	14	1	1	16
SG2	7	2	1	10
PA2	11	3	4	18
GUZTIRA	67	100	15	182
	%36.8	%54.94	%8.2	

3.2. HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

3.2.1. KURTSOEN KOPURUA

2023-24 kurtsoan denetara 47 ikastaro eman ziren, kurtso hauetan 373 ikasle izan zirelarik eta guzti honek 3621 ordu suposatu du. 1.2. puntuko taulak gure eskaintzako kurtsoak eta haien gauzatzea jaso badu ere, ondorengo taulak haiez gain enpresentzako neurrira egindako kurtsoak eta Lanerako Hezkuntzari loturikoak jaso ditu.

ENPRESA IKASTAROAK 2023/2024	Orduak	
Partículas Magnéticas nivel I (CIE Legazpi, S.A.)	20	23/10/02 – 23/10/06
UR3E (Orkli, S.Coop.)	35	23/10/09 - 23/10/26
Competencias básicas digitales (Goieki)	60	23/10/20 - 24/01/18
Gestión de mantenimiento (Orbinox, S.A.)	20	23/11/08 – 23/12/01
Recertificación de Líquidos Penetrantes (CAF, S.A.)	20	23/11/14 – 23/11/22
Recertificación de Ultrasonidos (Talleres Mecánicos Telleria - S.A., Forjas Iraeta Heavy Industry, S.L. – Metal Performers, S.A.)	6	23/11/17 – 23/11/17
Recertificación de Partículas Magnéticas (Tomas Arrizabalaga, S.L.)	6	24/01/09 – 24/01/10
Competencias básicas digitales (Goieki)	60	24/01/12 – 24/02/23
Fabricación aditiva, solid Edge, Corte y preparación (Ingeteam Indar Machines, S.A.)	20	24/02/26 – 24/03/18
Renovación Ultrasonidos nivel 2 (Olan, S.A. - Lau lagun Bearing, S.A. – CAF, S.A.)	20	24/03/01 – 24/03/22
Sopletista (CAF, S.A.)	5	24/03/01 – 24/03/01
Partículas Magnéticas nivel I (CAF, S.A.)	24	24/03/04 – 24/03/07
Recertificación de Líquidos Penetrantes (CAF, S.A.)	20	24/03/11 – 24/03/14
Recertificación de Líquidos Penetrantes (Cadinox, S.A.)	8	24/03/18 – 24/03/19
Recertificación/renovación de Inspección Visual nivel 2 acceso directo (CAF, S.A.)	20	24/03/18 – 24/03/21
Recertificación/renovación de Partículas Magnéticas nivel 2 acceso directo (CAF, S.A.)	20	24/03/18 – 24/03/21
Metrología (Talleres Jaso Industrial, S.A.)	5	24/03/22 – 24/03/22
Excel básico (Orkli, S.Coop.)	19	24/05/06 – 24/06/05
Partículas Magnéticas nivel I (CAF, S.A.)	24	24/05/27 – 24/05/30
Recertificación de Partículas Magnéticas (Sakana, S.Coop)	8	24/06/03 – 24/06/04
Recertificación de Líquidos Penetrantes (Ampo, S.Coop.)	8	24/06/05 – 24/06/06
Recertificación de Partículas Magnéticas (Matz Erreka, S.Coop.)	8	24/06/05 – 24/06/06
Excel A2 (Orkli, S.Coop.1)	15	24/06/10 – 24/07/01
Excel A2 (Orkli, S.Coop.2)	15	24/06/10 – 24/07/01
LANBIDE ETA BESTE IKASTAROAK 2023-2024		

FCOV27: COMPETENCIAS BÁSICAS EN LENGUA CASTELLANA Y MATEMÁTICAS (LANBIDE)	240	23/09/25 - 23/12/15
ADGG0208 ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS EN LA RELACIÓN CON EL CLIENTE	680	23/10/16 – 24/04/26
FMEE0308 DISEÑO DE PRODUCTOS DE FABRICACIÓN MECÁNICA	600	23/11/06 – 24/04/26
FMEC0110 SOLDADURA CON ELECTRODO REVESTIDO Y TIG	640	23/12/18 – 24/06/26
FCOI02 ALFABETIZACIÓN INFORMÁTICA: INFORMÁTICA E INTERNET	25	24/06/17 – 24/06/24
FCOI02 ALFABETIZACIÓN INFORMÁTICA: INFORMÁTICA E INTERNET	25	24/07/01 – 24/07/08


3.2.2. HEZKUNTZA EZ ARAUTUKO IKASLEEN SATISFAZIOA

Hezkuntza ez arautuko ikasleen satisfazioa **9,03/10**-ekiko izan da batz bestean eta balio hau **9,49/10**-era igo da irakaslearekiko duten satisfazioari dagokionez.

4. PERTSONENGANAKO EMAITZAK

4.1. PERTSONEN SATISFAZIOA

Pertsonalari egindako inkestan satisfazio indize orokorra 4,09 / 5 izan zen, honako banaketarekin:



Ikastetxean lan egiteagatik satisfazio maila 4,46 / 5 izan zen. Hobekuntza arlo nagusiak honako hauek dira:

Arloa	Batezbestekoa
Internet / korreo elektroniko zerbitzua bikaina da.	2,88
Nire betebeharrak burutzeko dudan denbora egokia da	3,22
Lan ordutegiak asetzen nau	3.42
Mantenimendu informatikoak asetzen nau.	3.46
Orokorrean, eskolako komunikazioa (sistemak eta edukiak) egokia da	3.82

Hobekien baloratutako gaiak, berriz, honako hauek dira:

Arloa	Batezbestekoa
Fotokopia zerbitzuak asetzen nau.	4,6
Nire eginkizunen jabe eta arduradun sentitzen naiz.	4,5
Lankideekin dudan harreman profesionalak (Lankidetza, informazioa trukatzea, ea.) asetzen nau.	4,45
Idazkaritzak ematen didan zerbitzuak asetzen nau.	4,45
Kudeaketa Unitate bakoitzak bere aurrekontuaren kudeaketa egitearekin erabat ados nago.	4,38

Bestetik, honako bajak gertatu dira kurtsoan zehar:

Gaixotasuna		Amatasuna/Aitatasuna		Lan – istripuaz		Istripu ez-laborala	
27	1124 egun	4	336 egun	1	7 egun	0	0 egun

5. KONTSEILU SOZIALA ETA ESKOLA KONTSEILUA

Ikasturte honetan ez dugu Zentru Integratuaren Kontseilu sozialik izan (Batxilergoko Eskola Kontseilua bai). Kurtso hasieran, Kontseilu Soziala eratzeko prozedura martxan genuelarik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik mezu bat jaso genuen, Itunpeko Ikastetxeen Kontseilu Soziala arautuko duen Dekretoa atera arte kontseilua ez eratzeko adieraziz.

Ikuskaritzarekin ere kontrastatu genuen eta Dekretuaren zai egoteko adierazi zigun ere.

Ikasturtean zehar Dekretu hori argitaratu ez denez, ez dugu Zentru Integratuaren Kontseilu Soziala izan.

Batxilergoari dagokionez, bilerak hauek izan dira:

Bileraren data	Hartutako erabakiak
2023ko Abenduaren 21a,	Gai ordena: 1. Eskola Kontseiluko kide berrien aurkezpena berritu ondoren. 2. Aurreko bileraren akta onartu (akta atxekitzen da). 3. 22-23 Ikasturtearen Memoria aurkeztu. (Memoria atxekitzen da). 4. 2023-24 Urteko Planaren aurkezpena. 5. Kudeaketa sistemari buruzko berriak. 6. Norberak leharkeena.
2024eko uztailaren 2a,	Gai ordena: 1. Aurreko bileraren akta onartu. 2. 2023-24 Kudeaketa Planaren itxiera. 3. Kudeaketa sistemari buruzko berriak. 4. 2024-25 ikasturteko egutegiaren onarpena. 5. Norberak leharkeena.

6. ORIENTAZIO ZERBITZUA

2024/01/01etik 2024/09/26-erako enplegu zerbitzuaren datuak ondorengoak dira:

6.1 LANBIDE - KOLOKAZIOA

➤ CURRICULUM ALDAKETAK	829
➤ ESKAINTZAK	216
➤ LANPOSTUAK	233

6.2 ENPLEGU ORIENTAZIOKO EUSKAL ZERBITZUA (LANBIDE – ORIENTAZIOA)

- ORIENTAZIOKO EKINTZAK **291** (pertsona bakoitzarekin batezbesteko 3 elkarriketa) (banakako ekintzak).
- ORIENTAZIOKO EKINTZAK TALDEKA, guztira **15 tailer, 72 partehartzaile** (3 ordutako iraupenarekin). TALDEKA - TAILERRAK .

TAILERRAK	ENPLEGU ZENTRUA	ORIENTAZIOA	GUZTIRA	PARTEHARTZAILEAK	MEDIA
LAN BILAKETAN HEDABIDEAK, IKT ETA LAN BILAKETA, ENPLEGU WEB GUNEAK	4	4	8	39	4-5
CURRICULUM VITAE ZEIN DA EGOKIENA?		1	1	4	4
AUTOEZAGUTZA / DENBORAREN KUDEAKETA ENPLEGU-BILAKETAN	2	2	4	20	5
HEZIKETA AUKERAK ZIURTAGIRI PROFESIONALA.		1	1	4	4
Aukeraketa prozesu probak; elkarriketa pertsonala, talde dinamika test psikoteknikoak		1	1	5	5

6.3 ENPLEGU ZENTROA (2024/01/01 – 2027/09/26)

- PERTSONA KOPURUA: 1468

(pertsona batzuk behin baino gehiago etortzen dira)

6.4 INCORPORA PROGRAMA (2024/01/01 -2024/09/26)

- LANA BILATZEKO ZAILTASUNAK DITUEN PERTSONA KOPURUA 141
- LAN ESKAINTZAK 48
- LANPOSTUAK 53
- ENPRESETARA BISITAK 63

6.5 LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOAK LAN MUNDUAN SARTZEKO DITUZTEN ZAILTASUNENGATIK

- **ATZERRITARRAK**; bere kabuz etortzen direnak edota eskualdeko zenbait Udaletxetako gizarte zerbitzuetatik bidalitakoak. Talde ezberdinak dauzkagu.

- Dokumentazioarekin, ikasketarik gabe eta lan esperientzia gutxirekin. Egoeran larrian bai arlo ekonomikoan baita arlo sozialean.
 - Ikasketa maila altua eta lan esperientziarekin, baina ikasketak homologatu gabe dauzkatenak.
 - Dokumentaziorik gabe.
- **UDALETXETAKO ZERBITZU SOZIALETATIK BIDERATUTAKO PERTSONAK:** udaletxetako gizarte laguntzaileen bitartez diru laguntzak jasotzen ari diren pertsonak, egoera larrian, ikasketa maila baxua eta lan esperientzia gutxi dute.
 - **LANBIDE BEASAINDIK,** orientazioko ekintzak martxan jartzeko asmotan bideratutako pertsonak: Gehienbat “RGI eta PCV” laguntzak jasotzen dituzten pertsonak bideratu dizkigute. Egoera larrian dauden pertsonak dira, bai bere egoera ekonomikoarengatik, bai eta zailtasun handiak dituztelako lana bilatzeko garaian ere (ikasketa maila baxua, esperientzia bakarra kualifikazio gutxiko lanetan, teknologia berrietara egokitzeko zailtasun haundiekin...)
 - **LANERAKO HEZIKETA EGITEN DUTENAK:** Langabetuei bideratutako ikastaroak egiten dituzten pertsonak, ikastaro hauek Lanbideren bitartez egiten dira eta behin heziketa bukatzen dutenean enplegu zerbitzura etortzen dira zein lan aukerak dituzten aztertzeke.
 - **45 URTETIK GORAKO PERTSONAK:** kualifikazio gutxirekin eta bere bizitza osoan zehar enpresa batean lanean aritu direnak eta bapatean langabezian gelditu direnak, ez dakite nondik hasi lana bilatzen
 - **LANGABEZIAN DENBORAN LUZEN DAUDEN EMAKUMEAK,** ikasketak dituzten emakumeak, baina urteak langabezian daramatenak bere familia zaintzen egon direlako eta orain lan merkatura bueltatu nahi dutenak
 - **GAZTEAK IKASKETA MAILA BAJUAREKIN:** 30 urtetik beherako gazteak ikasketarik gabe edo oinarritzko ikasketekin, lana bilatzeko garaian zailtasun handiak dituzte.
 - **GAZTEAK:** Kimika, Gizarte eta Humanitate zientzietan diplomadunak eta ikasketa horietan lizentziatutako pertsonak.
 - **EMAKUMEAK:** ikasketarik gabe, lan esperientzia gutxirekin edo Goierri mailan gutxi eskatzen diren profilekin.
 - **BERAIEN ENPRESETAN IZANDAKO KRISIAK BIDERATUTAKO PERTSONAK:** Bizitza guztian lanean egon direnak eta orain lanik gabe gelditu direnak: ERE, plantilla murrizketa, enpresen itxierak.

Bestetik, honako hauek ere hurbiltzen dira Enplegu Zerbitzura orientazio/lan bila:

- **ONARRIZKO LANBIDE HEZIKETA BUKATUTAKO IKASLEAK:** Behin ikasketak amaitzen dituztenean Enplegu Zerbitzura gerturatzen dira zein aukerak dituzten aztertzeke bai enplegu alorrean edota heziketa alorrean.
- **ZIKLOETAKO IKASLEAK:** Erdi mailako eta goi mailako zikloak bukatzen dituzten ikasleak bai Goierri Eskolan baita beste ikastetxeetan ikasitakoak. Behin zikloa amaitu eta gero, lanik aurkitzen ez dutenak Enplegu Zerbitzura gerturatzen dira zein aukerak dituzten aztertzeke.

GRADUKO INGENERITZA AMAITUTAKO IKASLEAK: Ikasketak amaitzeaz daudenean Enplegu Zerbitzura etortzen dira zein aukerak dituzten aztertzeke bai heziketa atalean bai lan aukerak.